





Fuente: SITNA-ISPLN



1. Argibide orokorrak

	Eskualdeko balioa	Nafarroa
Biztanleria (2023):	17.822 Emak.: %50,7 Giz.: %49,3	672.155 %49,5 %50,5
Batez besteko adina:	Emak.: 46,1 Giz.: 43,8	46,3 43,2
Ugalkortasun-tasa:	%127	-
Gazteen mendekotasunaren indizea:	% 23,3	%24,7
Zahartzaroko mendekotasun indizea:	%36,6	%32,0
Gainzahartzea:	%16,4	%17,2
Atzerritan jaiotako biztanleak:	%18,5	%17,9
Bizi itxaropena:	Emak.: 85,7 Giz.: 80,9	86,8 81,3
Biztanleria-densitate:	201,5 biz.km ²	68,9 biz.km ²
Zabalera:	88,44 km ²	9758,6 km ²
Zer Eskualdetakoa den:	Erdialdeko Eskualdeak (ikus mapa)	
Udalerriak:	Aberin, Ayegui, Estella/Lizarra, Iguzquiza (excepto: Urbiola), Morentin, Villamayor de Monjardín, Yerri (Bearin)	

2. Komunitatea eta osasuna

Faktore soziodemografikoak eta ingurumenekoak. Lizarrako osasun-eskualde oinarrizkoan, beste eskualdeekin alderatuta, DBHko graduatu titulurik gabeko 18-24 urte bitarteko gazteen ehunekoa (% 8,2), 20 urtetik

beherako ama duten jaioberrien tasa (% 3,7), pobrezia larriko arrisku-tasa (% 11,8), diru-sarreraren desberdintasuneko Gini indizea (% 33,4) eta bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko emakumezkoen etxeen ehunekoa (% 43,2) handiak dira.


Osasunari dagozkion emaitzak. Lizarrako osasun-eskualde oinarrizkoa eskualdeen laurden hoberenean dago datu hauetan: soilik amagandik edoskitzen duten 6 hilabeteko haurrak (% 45,0) eta 2 motako diabetesa diagnostikaturik duten gizonak (% 7,5). Bestalde, emaitza txarrak ditu datu hauetan: HbA1c-ren neurraketa duten diabetikoak (% 74,4) eta TA-ren neurraketa duten hipertentsoak (% 46,8).

Inkesta-adierazleak. Hurrengo emaitza doituak* Erdialdeko Eremuei dagozkie (LAP zonifikazioa); Lizarrako eskualde oinarrizkoa zona horretan dago. Erdialdeko Eremuek emaitzarik onena dute zenbait adierazletan: bizimodu sedentarioa izatea (emakumeek: % 22,3), ongizate txikia izatea oro har (emakumeek: % 21,3), tabakoa egunero erretzea (emakumeek: % 12,9) eta gehiegizko pisua izatea (15 urteko edo gehiagoko gizonek: % 54,8). Aitzitik, emaitzarik txarra du adierazle batean: ongizate txikia izatea (gizonek: % 34,2).

***Oharra:** Inkesta-adierazleak eta hala eskatzen duten beste adierazle batzuk sexuaren eta adinaren arabera doitu dira, eskualdeen arteko konparazioa egin ahal izateko. Adierazle gordinak hurrengo orrialdearen behealdean agertzen dira.

3. Adierzleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira adierazle sorta bati dagozkion eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoarekin alderaturik (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarritzkoen multzo osoarekin alderaturik. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero, haien [banakako fitxak](#) ikus daitezke Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1: Biztan. Mug. Nat.; 2, 6-7: SIPNa (Nafarroako Biztanleriaren Sistema Integratua); 3: Biztan. Akt. Ud. Est.; 4-5: Errenta. Est.; 8: SIGPAC (Nekazaritzako Lurzatiaren Informazio Geografikoko Sistema); 10, 24-27, 30-31: Oinarritzko osasun-laguntza; 10-21: ESyCV (Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta); 22-23: NOPLOI; 28-29: Farmazia prestazioa

Nafarroa Atlantikoaren adierazleak (10-21) LAP zonifikazioa (NASTAT). Irudian adierazitako balioen kopurua: 4.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzarekin alderatuz (bizimoduaren, morbiditatearen eta osasun sistemaren adierazleentzako eginiko kontrastea).

1. Urteko batez besteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14 eta 19 urte bitarteko emakumeetan; **2.** DBHko graduatu-titulurik edo haren baliokiderik gabeko 18tik 24 urtera arteko gazteen %; **3.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean; **4.** Bizikideen errentaren baturak pobrezia larriaren atalasetik behera egiten duen etxeetan bizi diren pertsonen %; **5.** Diru-sarreraren desberdintasunaren Gini indizea, datu baxuagoak berdintasun handiagoa adierazten du; **6 eta 7.** Bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko pertsonen %, adin horretan familia-etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **8.** Baso-azaleraren %; **9.** 170-190 egunetara soilik amagandik edoskitzen duten haurrak %; **10 eta 11.** Frutak eta barazkiak egunero jaten dituzten pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 35,4 eta gizonak 27,5); **12 eta 13.** 15 urteko edo gehiagoko sedentarioen % doituia: ariketarik egiten ez dutela diote (t. gordina: emakumeak 22,8 eta gizonak 20,4); **14 eta 15.** Astean 100 g alkohol baino gehiago hartzen dutenen % doituia (t. gordina: emakumeak 6,3 eta gizonak 23,1); **16 eta 17.** Tabakoa egunero hartzen duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 11,9 eta gizonak 21,8); **18 eta 19.** Ongizate orokor baxua duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 21,9 eta gizonak 33,5); **20 eta 21.** Pisu gehiegi, gehiegizko pisua edo obesitatea duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 38,3 eta gizonak 57,2); **22 eta 23.** Pisu gehiegi -gehiagizko pisua edo obesitatea duten- 6tik 9 urtera arteko haurren prebalentzia doituia, OMEK haurren hazkuntzarako emaniko ereduaren arabera (t. gordina: emakumeak 30,4 eta gizonak 31,5); **24 eta 25.** 2 motako diabetesa duten 20 urte edo gehiagoko pertsonen prebalentzia doituia (t. gordina: emakumeak 5,6 eta gizonak 8,2); **26 eta 27.** 3 patologia edo gehiago dituzten 65 urteko edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 7,9 eta gizonak 10,9); **28 eta 29.** Azken urtean, multzo hauetako bateko 3 ontzi edo gehiago hartu dituzten pertsonen % doituia: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (t. gordina: emakumeak 18,1 eta gizonak 8,7); **30.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua (HbA1c-a) neurtu duen biztanleriaren %; **31.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala (TA) neurtu zaien biztanleriaren %.